

# GIZARTE-LANA: DATUEN BILKETAN TEKNIKA KOANTITATIBOAK ETA KOALITATIBOAK NOLA INTEGRATU

***Gizarte-lanean funtsezkoa gertatzen diren datuak, bildu aholkatu, eskuhartu eta ebaluatu ahal izateko, gizarte-langileek datuak biltzeko teknika eta metodo bat baino gehiagoren jabe izan behar dute. Tradizioako pertzepzioaren arabera ikerketa eta praktika bi iharduera bereizi edo elkarrengandik aldentu direlako eta ikerketa-metodo eta teknikek eguneroko lanean eraginik ez dutelako ustea sortu da. Bestalde, azken boladan, paradigma koantitatiboak eta koalitativoak kontrajarri dituen eztabaidak oraindik areagotu egin du auzia.***

Paradigmak datuak biltzeko metodoen kategoria soil batzuk baino zerbait gehiago dira. Paradigma koantitatiboek eta koalitativoek gizarte-mundua ikusteko, mundu hori ezagutu eta ulertzeko, eta datuak biltzeko eta ikerketa diseinatzeko, zientzia duen rolaen era ezberdinak adierazten dituzte.

Paradigma koantitatiboak eragin nabaria izan du gizarte-langil askoren baitan, ikerketa datu-bilketa objektibo bati loturiko diseinu ezaguera-erakitzaile experimental edo erdi-esperimental bezala ikuserazten. Baina horietako zenbait praktikan erabiltzen hasi zirenean, berehala ohartu ziren ez ziotela gizarte-lanaren premiari ongi erantzuten. Honako kritika hauek egiten zitzaizkion paradigma koantitatiboari: metodo horiek tradizioz gizarte-langilea kezkatzen duten arazoen aldean askoz auzi txikiagoetara zuzenduak daude, metodo horiek distorsionatu egiten dituzte aztertzen diren gaiak, ez dute asmatzen ikerketan dagoen subjektu-subjektu erlazioa ezagutzen eta subjektu-objektu erlazio bezala areago hartzen dute, beren aurkikuntzak ezin daitezke giza testuinguru batera orokortu artifizialki kontrolaturiko ingurunetan egindako behaketetan oinarrituak bait dira, eta objektibitate osoa posible dela uste dute, ekintza guztiak subjektibitatean oinarrituak izaki.

Paradigma koantitatiboaren kritikalariek paradigma koalitativoarentz abiatu behar dela aitortu dute. Ezaguera gutxi, irispide mugatua, eta egoerarekiko kontrol gutxi dagoenean, metodo koalitativoak askoz eraginkorragoak gertatzen dira. Metodo koantitatiboak egokiak dira kausa-ondorio erlazioak ezartzeko eta balio eta prozesu profesionalak teknika kontrolatu intrusiboek arriskutan jartzen ez dituztenean. Hala ere, biek, nola teknika koantitatiboek hala koalitativoek dituzte osagai baliagarriak. Gizarte-lanari begira, bi ikuspegi horiek hurbilbide bateratu eraginkor bat izateko moduan nola integratu jakitean dazta arazoa.

Dena den, paradigma koantitatibo eta koalitativoen arteko tirabira honek hirugarren paradigma integratu bat egin litekeelako jartzen duela agerian. Horretarako egileak datu-bilketarako paradigma koantitatibo eta koalitativoen oinarritzko usteki-zunak deskribatzen ditu. Halaber, aztertzen du gizarte-lanaren prozesua nola jarraitzen zaion datu-bilketazko ziklo orokor bati ere. Prozesu horretan lerraketak gerta daitezke behar diren datuen izaeran: datu koalitativo, inferentziazko edo subjektiboago batzuetatik datu koantitatibo, dedukziozko, objektiboagoetara edota konbinaketa batera. Ikerketan bada triangulazio anizkuna

deitzen zaion egoera bat, non ikertzaileak ikerketa berean teoria bat, datu-bilketa estrategia bat, datu-sorburu eta metodologia bat baino gehiago batabesteekin konbinatzen dituzten. Praktikan, metodoen horrelako triangulazio batek fenomeno bereen alderdi ezberdinak jartzen ditu agerian eta fenomeno horien errealitatea eratzten duten interakzio eta transakzioetara iristeko lanabesak eskaintzen ditu. Artikulu honetan kasu-azterketa bat eskaintzen da datuen izaeran gerta litekeen lerraketa baten berri emateko, horrela ikuspegi sakonago bat lortzeko.

## **PARADIGMA KOANTITATIBOA**

Paradigma koantitatiboak osoki eta zehazki ezagutu daitezkeen errealitate ordenatu, arautu eta egonkor bezala ikusten du gizarte-mundua. Norbanakoak, antolamenduak eta gizartea gizarte-egintzak iragaritzen eta gidatzen dituen gizarte-errealitatearen egitura deterministikoaren isiadapen instrumental bezala hartzen ditu.

Paradigma koantitatiboak teoriak deskribaturiko erlazioak egiaztatu edo berresteko metodoak erabiltzen ditu. Bere ikerketa esperimental eta koerlazionala egiaztapenera zuzendua da, erreduktionista, ondorioz deduktiboa da eta orokorpenak sortzen dituena. Datu-bilketa koantitatiboaren helburua da gizarte errealitatearen operazionalki definituriko osagai partikularrei buruz gertakari zenbakizko, fidagarri, behagarri eta objektiboak ematea.

## **Oinarrizko Datuen Bilketa-Teknikak**

Ondoren gizarte-langileek beren esku-ra dauzkaten teknika batzuen zerranda eskaintzen dugu eta beroriek erabiltzerakoan kontuan izan beharreko zenbait ohar egiten dugu. Gogoan izan bedi zerranda ez dela agortzailea eta teknikak ez direla bata bestea baztertzeko dutenak edo elkarrekin ezin uztartuzkoak.

## **Zuzeneko Behaketa Egituratua**

Honelako prozedurek pertsona-ingurune erlazioan aldagaiak kritikoki kategorizatu eta operazionalki definitzeko aukera eskaintzen dute. Horretarako beharrezkoa da behaketa sistematikozko kodeak eta azterketa-zerrendak prestatzea. Egoki erabiliz

gero data baliagarri eta zehatzak ematen dituzte aldagai askori buruzkoak ingurunearekiko duen elkarreraginari buruz.

## **Ex Post Facto Kontrol-zerrendak eta balorazio-eskalak**

Kontrol-zerrendak zenbait aldagai agertzen den ala ez atzemateko metodo egituratu simplea eskaintzen dute. Kontrol-zerrendetan deskribagailu egonkorak, jazoera banatuen erregistroak, egoera-erantzun estandarizatuak, iharduera-erregistroak eta ezaugarri— adierazgailuen kontrol-zerrendak aurkitzen dira.

Balorazio-eskalak kontrol-zerrenden antzeratsu erabiltzen dira, baina haiek epaiketa koantitatiboak behar izaten dituzte jakiteko zer neurritaraino giza edo ingurune-ezaugarriak, berezitasunak edo baldintzak iraunkorrek diren maila jakin bateko ordena-jarraikitazunean. Zuzeneko behaketaren bidez lortuko ez litzatekeen informazio deskribatzaile eta xehetua eskuratzen dute teknika hauek. Balorazio-formularioek iturburu ugarietatik deskribapen-datu garrantzizkoak biltzeko aukera ematen dute. Behaketa egitarauen kasuan bezala, gizarte-langileek interpretatu egin behar dituzte kontrol-zerrendak edo balorazio-eskalak beste iturburuetatiko datuekin batera.

## **Galdezerrendak**

Galdezerrendetan honako hauek daude: kontrol-zerrendak, balorazio-eskalak eta irteera irekiko itaunak, zeinak erantzuleak osatzen dituzten, faktore askori buruzko informazioa eskuratuko duten sentimendu pertsonalak, nortasun-ezaugarriak, norberak txosteneraturiko portaerak, jarrerak, interesak, estatus-giroaren aldagaiak, estatus soziometrikoa eta taldeango pertsona-ezaugarriak barne direla. Gizarte-langileak erantzunak behar bezala jasotzeaz arduratu behar du datu fidagarri eta baliozkoak sor daitezkeen. Erantzulari informazioa legitimatzeko eta bere lankidetzaren areagotzeko erantzun behar dizkio gizarte-langileak galdezerrendak.

## **Norberak kontrolaturiko txostenak**

Norberak kontrolaturiko txostenak datuak jasotzeko pertsona bat behar du bere inguruneaz edo portaeraz datuak jasotzeko.

datuak biltzeko dauden hainbat metodoe-tarikoren bat erabiliz: hala nola, papera eta lapitzazko erregistroa, zenbagailu automa-tikoa, denbora neurtzeko tresnak eta adra-zu elektronikoak. Pertsonari irakatsi egin behar zaio egoera edo portaerazi buruzko data jakin horiek ezagutzen, erregistratzen, taulak egiten eta analizatzen, subjektuaren erreaktibilitatea gutxitu eta zehaztasuna se-gurtatzeko moduan.

### **Egoera artifizialak edo simulazioa**

Batzuetan egoera artifizial bat diseina-tu behar izaten da partideek uste izan de-zaten jazoera arrunt bat esperimintatzen ari direla berezko habitatean, eta horrela beren protaera neurketapean dagoela kon-turatu ez daitezen. Egoera simultatuan, subjektuak badaki egoera ez dela erreala baina berezko egoerakoaren ahalik eta mo-durik antzekoenean egituraturiko iharduera eta baldintzen aurrean aurkitzen da. Neur-keta-eszenategi horiek bezeroaren portaera ebaluatzeko aukera ematen dute egoera kontrolatu merke, errealista samarrean bai-na hala ere egokian. Badituzte beren mu-gak baina laguntza nabarmena eskaintzen dute pertsonen erreperitorioetan dauden trebetasun edo portaerak neurtzeko.

### **Errutina-erregistroak**

Errutina-erregistro edo dokumentuak material idatziak edo ohar-idazketak dira, erregulariki egiten direnak aribidean dau-den operazioei buruzko alderdi bereziak deskribatzen dituztenak. Edukinaren az-terketa burutuz datu koantitatibo sistema-tikoak atera daitezke berorietatik. Erregistro horiek ingurune jakin bateko pertsona guz-tien esku egoten direnez gero eta erruti-nazkoak direlarik datu eskuraerrazak, kon-paragarri eta neke gutxikoak lortzeko aproposak dira.

### **Neurketa diskretoak**

Neurketa diskretoak egiteko beharrez-ko da atentziorik ez deitzea behaketakoan eta subjektuari ez agertzea bildu diren da-tuen izaera berezia. Bi neurketa izan litezke balio berezikoak gizarte-langileentzat: 1) erabilera-aztarnek adierazgailu-sorta ugaria eskaintzen dute objektu, gune, zerbitzu eta abarren erabilera-maiztasuna neurtzeko; 2) produktu iraunkorrek informazio adieraz-

garria eskaintzen dute giro edota pertsoneri buruz. Adibidez, pandila-sinboloak edo au-zoko hormetan ageri diren seinale ezkutukoak zer gisatako jendea eta nondik ibil-tzen den erakusten dute; gune batean ageri diren botila hustuek ere bertan dagoen edateko ohituraren isladapen ere izan dai-tezke.

### **Testak**

Testak datu estandardizatu eta siste-matikoak emateko garatuak dira adimen-dua, lorpena, nortasun-izaera, interesak, ja-rrerak, pertzepziozko erantzun, erreakzio fisiologiko eta balioei buruz. Nahiz eta tes-tak oso eraginkorrak izan datuak biltze-koan, berorien eraiketak banakako puntuen garapena eta osotasun batean egituratzea eskatzen dute konstruktuen neurketa fi-dagarri eta baliozkoa sor dadin.

## **PARADIGMA KOALITATIBOA**

### **Ustekizun nagusiak**

Paradigma koalitatiboak errealitate oso konplexu eta dinamiko, esanahi eta ikus-pegiz osatu eta ingurugiro-testuinguruak eta situazio-aktoreen interpretazio subjek-tiboak elkarregintzak bortizki eragina beza-la ikusten du gizarte-bizitza. Jendeak oso era ezberdinez atzematen eta interpreta-tzen du munduaren errealitatea; gizarte-bi-zitzaren eraikuntza egintza interpretatzaile ugari horien ondorioa da. Ikerketa koalita-tiboak fenomeno horien baitan dauden esanahi-harremanak eta harreman horiek gizarte-portaeran dituzten eraginak jarri nahi ditu agerian.

Ikerketa koalitatiboazko diseinuak zo-rrortasun handiz egituraturiko ahaleginak erabiltzen dituzte ikertzaileak berak duen erreferentzi markoa alde batera uzteko eta egoera bakoitzean dauden subjektu norba-nakoen ikuspegi subjektiboak eta interpre-tazio-prozesuak ulertu eta erregistratzeko. Datu-bilketak egoeratan aurkitzen diren testuinguru, portaera eta esanahi kontrola-tugabeen deskribapen holistiko, naturalista eta diskretoak erabiltzen ditu. Nahiz eta ikerketa koalitatiborako ez egon arau zu-rrun estandardizaturik, ikerketa eta datu-bilketa koalitatiboak disziplina, fidagarritasuna eta baliozkotasuna eskatzen duten orientabide nagusi batzuk jarraitu behar ditu.

## Oinarrizko Datuen Bilketa-Metodoak

Zuzeneko Behaketa Egituratugabea, Zuzeneko Behaketa Egituratugabeak eskatzen dio datu-biltzaileari era narratiboan ingurugiro, pertsona edo bien arteko elkarrengintzen alderdi kritikoen zuzeneko behaketak erregistratzea. Notazioak behaketa-aldian bertan edo denboraldi berezi baten ondoren egiten dira eta erregistro objektiboak izaten dira edota behaketa objektiboen eta interpretazioen konbinazioak. Deskribapen ekologikoak, espezimen-erregistroak, anekdotak eta eremu-oharrak aurkitzen dira teknika horien artean. Adibidez, eskolako gizarte-lanean eremu-oharrak baliagarriak izan daitezke irakasleari laguntzeko hasieran lausoa den arazo bat zehazten.

Zuzeneko behaketa egituratugabearen teknikak ingurune fisikoa eta bertako biztanleen balorazio zehatz, xehetu eta sistematikoa eman dezake. Hala eta guzti ere, hurbilbide honen muga giza behaketak berezkoa duen ahulezian datza; zer erregistratu hautatzeak daukan subjektibotasuna, izan ere horretatik fidagarritasunik gabeko datuak sor baitaitezke; eta baita datuak erregistratzekoan interpretazioak edo inferentziak tartekatzea ere, datuen subjektibotasuna areagotu dezaketenak.

## Elkarrikusketak

Elkarrikusketek, gizarte-lanaren funtsezko teknikak egoera batean muntaduna den informazioa jasotzen du, komunikazio eraginkorra eta pertsonarteko trebetasunak elkarriketa gidatu eta xedatu baten barruan. Elkarrikusketa egituratuek galdezerrenda estandarizatuak, alternatiba finkatuak, osatugabeko erantzun-formatoak edota gai jakin batzuei buruz informazioa jasotzeko arretaz diseinaturiko kasu-exempluzko materialak erabiltzen ditu. Elkarrikusketa egituratugabeak formato malguago eta gutxiago standardizatua du eta gehienera ere arazo nagusien inguruan aditasuna zentratu edukitzeko egitura edo gidaritza eskaintzen du.

Elkarrikusketen mugak datuak prozesatzeko orduan eta elkarrikustailak elkarrikustatuarengan duen eraginean agertzen dira, izan ere berezko egoera aldatu egin baitaitezke edota datuek desegoki erregistratu eta xehetasun garrantzizkoak jaso gabe gera baitaitezke. Elkarrikustatuaren kultur arau orokorrak eta giroa ezagutzen

ez dituenak baliteke informazioaren esanahia gaizki interpretatzea.

## Datu-Bilketarako Teknika Koantitatibo eta Koalitativoak nola integratu

Gizarte-lanak pertsona eta ingurunearen artean lan egiten du bien elkarregokitze bat lortu nahian. Horretarako urratsa ugari eman behar izaten dira eta gizarte-langileak teknika koantitatibo eta koalitativoak ezezik datu-sorburu eta mota ezberdinak erabili behar izaten ditu.

Gizarte-langileak, bezeroa baloratzen ari denean eta haren praktika ebaluatzen, derrigorrezkoa du berari buruz duen ezaguera subjektibo sakona eta ingurunearekiko ezaguera integratzea aldagai kritikoa kontutan hartuz. Esaterako, gizarte-langileak metodoa koalitativoak erabil ditzake bezeroaren egoeraz ezaguera subjektibo eta oinarritua eskuratzeko eta ondoren erabakiko du zer alderdik behar duten neurketa koantitatiboa. Ateratako datuek eratu ta gidatuko dute eskuhartzea. Azkenean, gizarte-langileak datu-bilketako teknika koantitatibo edo koalitativoa jo dezake eskuhartzearen balorazioa egin eta neurtzeko. Gizarte-lanaren urrats bakoitzak ezagura zehatza eta paradigma koantitatibo edo koalitativoan aurkitzen diren datuak eskatzen ditu.

Gizarte-laneko prozesua hiru sail nagusitan banatzen da: balorazioa, eskuhartzea eta ebaluaketa; hauetariko bakoitza, bere aldetik, urratsa ezberdinetan bereizten da.

Balorazioan, sarritan prozesu koalitativo batekin hasten den sail horretan, gizarte-langilea bezeroa ulertzen saiatzen da eta ez kausazioaren edo beste osagai kritikoen ezaguera zehatza. Urrats honetarako datu-bilketarako teknikak elkarrikusketak eta behaketa egituratugabeak izan daitezke. Ulerkuntza-maila jakin bat lortu denean, hurrengo urratsak informazio koantitatiboa kausa-ondorio balorazio hipotesiazko batean lortu eta antolatzea eskatzen dio gizarte-langileari. Honela, gizarte-langileak bezeroaren egoeraz ikuspegi bat hautatzen duenean, integrazio teorikoa gertatzen da eta badaki nondik norakoak izan behar dute eskuhartze-estrategiak. Maila honetako datu-bilketa koantitatiboa da eta testak, errutina-erregistroak eta balorazio-eskalak

bezalako iturburuetatik jaso daiteke. Hala ere, prozesu honetan barrena dabilela, gizarte-langileak oso adi egon behar du eskuhartzekoan ager daitezkeen alderdi koalitatiboetara, hau da, balio, esanahi edo sentimendura.

Eskuhartzea aurrera doan heinean, datu-bilketazko teknika koantitatiboek oinarria emango diote gizarte-langileari eskuhartzeak duen doiketa-premia zehazteko eta bezeroaren autonomian gertatzen ari diren aldaketak identifikatzeko. Ebaluazioaren maila hori funtsezkoa da aldaketaren bat gertatu dela egiaztatzeko. Ebaluazioa maila koalitatibo batean amaitzen da, zeinak eskuhartzearen esanahiaren edota bezeroaren egoera erasan duten aldaketen azterketa arretatsua eskatzen duen. Gerta daitezke aldaketa objektiboak. Hala ere, loturarik ez badute esanahi subjektibo positiboekin bezeroarentzat eta egoerarentzat, baliteke murrizak bailiran edota benetako esanahi gabeak bezala bizitzea.

Urrats bereziak eman litezke gizartelanaren prozesuan paradigma bakoitzeko datu-bilketa teknikak integratzeko. Guztia-ekin ere, integrazio hori ez da orokor, horizontal eta metodoak elkargainkatzen dituen: bestelako integrazio bat da, gizartelanaren prozesuan geruzak errebortxatzen dituen. Nahiz eta teknika horien erabilera aldiberekoa izan zuzeneko aplikazioan, hurrenez-hurren geruzatuak daude erabakiak hartzeko prozesuan.

Datu-bilketako teknika bakarra edota paradigmaketako tekniken konbinazioa erabili behar den, gizarte-langilearen epai klinikoak erabakitzen du, zer informazio edo datu behar diren bezeroaren egoerari buruz jakin eta ondoren burutu behar den egintzaren urratsak zehazteko. Praktikariari dagokio auzi horien "barne-galdeketa" burutzea eta auzi horien formulazioak gidatzen du praktikaria zein datu-bilketako teknikara jo behar duen erabakitzerantz, falta den informazioa osatzeko edota emaitza ebaluatzeko. Normalean ez da izaten erabakiak hartzeko arau formulaturik.

Integrazioaren klabea ez da besterik gabe datu-bilketako teknika koantitatibo eta koalitatiboak erabiltzea baizik eta askoz hurbilbide konplexuago bat: teknika edo konbinazio egokia erabiltzea gizartelanaren prozesuko urrats jakinean. Integrazioa ez da prozesu pilakorra, datu koantitatibo eta koalitatiboek helburu bakar eta ezber-

dinei zerbitzatzen dieteneko ikuspegia da eta gizarte-lanaren prozesua indartzeko bata bestea errebortxatzen ari izaten dira. Honako kasu-estudioa argigarri gerta daiteke puntu hauei dagokienez.

Diru-sarrera apaleko famili hun bat hogeitaka urte zituzten aita-amaz, 3 urteko semeaz, eta 2 urte eta 6 hilabeteko alabez osaturik zegoen. Ahaideen informazioz, gizarte-langileari jakinerazi zitzaion familia hontan hurrez arduratzeko arazoak zeudela.

Datu koantitatiboetan bildutako informazioak zioen amak goi-mailako ikasketak zituela eta aitak karrera bukatzeko bi urte falta zituela eten zituela ikasketak. Aitak irabazten zuen etxeko soldata apala, hiriko lantegi batean orduka egiten zuen lanarengatik, eta familia langile-azategi batean arestian erositako etxe batean bizi zen. Bazituzten ahaideak inguruko auzategietan eta hirian zehar.

Lehen kontaktoan gizarte-langileak elkarrikuste egituratua (datu koantitatibo edo koalitatiboak) erabili zuen senar-emazteekin, ezkon eta famili bizitzaren historia jasotzeko. Datu hauei esker gizarte-langileak konparaketa bat egiteko aukera izan zuen familia honen eta ikerketa klinikoko biografiak eskaintzen duen famili mota eta konstelazioaren artean. Egituratu gabeko elkarrikuste-galderek eta egituratugabeko behaketa zuzenak (datu koalitatiboek) famili testuinguruari buruzko deskribapen aberatsagoak eman zituzten hasierako ebaluaketa-saioetan.

Hasieran egin zen ebaluaketatik jaso-tako datuek erakutsi zuten familiak arazo asko zutela eta gaitasun sozial eta intelektual mugatua zuten gurasoek borroka gogorra egin behar zutela "familia normal" bat aurrera ateratzeko presio sozial, emozionak eta finantzario handien artean. Aitararen lan-segurtasuna beti auzitan egon zen bere hezkuntza eta gizarte-trebetasunengatik eta etengabe sortzen zitzaizkion famili larrialdiek lana galtzera eramaten zuten. Erosi berria zuten etxea diru-ihesbide handia gertatu zitzaian, espero ez zituzten konponketak eta gastu berriak egitera behartu zituelako. Gainera, ohartu ziren 3 urteko mutikoak portaera-arazo nabariak zituela. Baina begibistakoak diren arazo hauekin nahasturik, bikoteak familiaren baitan ezartzen zuen balio subjektiboak ere sortzen zizkien arazoak, nahiz eta sotilagoak izan: batez ere hurrei laguntzak sor-

tzen zien konpromisuak eraginda jo zuten aholku eta oinarri bila.

Lehen ebaluaketaren arabera, argi eta garbi ikusi zen gurasoen trebetasunak oso urriak zirela. Arratsalde batean bisita egin zitzaizen bikoteak seme-alabak hezitzeko zeukan trebetasuna egiaztatuz ahal izateko. Eremu-oharrak ta etxearen deskribapen ekologikoa (datu koantitatiboak) erabili ziren familiako senideen arteko elkarreragintza eta etxe-bizitza zehazteko. Datu egitura-tuek (datu koantitatiboek) erakutsi zuten mutikoa oso aktiboa zela ta sarritan era negatiboan arreta erakartzeko eran portatzen zela. Eremu-oharrek adierazi zuten sarritan gertatzen zirela elkarreragin negatiboak familian: hitzezko zuzenketa garrantzak edo zigorrak, hitzezko zigor luze eta konplikatuekin batera. Bi gurasoak aritzen ziren seme-alabak zaintzen, baina bien arteko hitzezko trukeak oso kritikoak eta elkarrentzat laguntasunik gabeak ziren. Etxebizitzan patxadazko oso une gutxi izaten zen, oro har. Baina kaosa eta tiradura gorabehera, bazirudien aski interes handia zegoela haurren zainketari zegokionez. Haurrak lotara bidali aurretik, elkarri musu eta besarkada ugari ematen zizkioten.

Deskribapen ekologikoak ere errebor-txatu egiten zuen familia honek zeukan hezkuntza-interesa. Nahiz eta etxeko altzariak gutxi eta merkeak izan, jostailu, hizkuntza-material, famili argazki eta argazki-album ugari zegoen. Haurren marrazki eta pinturak norahi ageri ziren. Senar-emazteei egindako elkarrizketa egituratu gabe batek (datu koantitatiboak) agerian jarri zuten frustrazio-sentimentuak, kontrolik eza eta eraginkortasunak eza zirela nagusi beraien artean. Elkarri errua botatzeko prest bazeuden ere, elkarrenganako maitasuna aitortzeko ere ez zuten eragozpenik. Horrela ikusi ahal izan zen, famili maitasun eta interes hori izan zitekeela abiapuntu esperantzagarri etorkizunean urrats positiboak eman ahal izateko.

Azken ebaluaketak berezko elkarreragin behaketa egituratua erabili zuen bi gurasoekin (datu koantitatiboak). Lehen bisita egin zeneko behaketa-testuinguruaren antzeko batean, gizarte-langileak bi gurasoek ematen zituzten orientazio simple, argi eta adinera moldatu eta konkretuen kopuruari buruzko datuak, ondorio negatiboen mota eta kopuruak, positiboen mota kopuruak erregistratu zituzten. Gizarte-langileak, halaber, erregistratu zituen haurrekin lanean ari ziren bitartean gurasoen artean izaten

ziren elkarlaguntzazko baieztapen positiboen kopurua ere. Haurrak oheratu zirenean gizarte-langileak galdetu ziren gurasoei ea nola ikusten zuten haurren portaera eta zer erabili zuten saritzat eta zigortzat, zer espero zuten elkarrengandik haurrak zaintzeko orduan eta nola laguntzen zioten bata besteari haurrekikoan. Datuek erakutsi zuten ez guraso batak eta ez besteak ez zirela eskaintzen haurrei portaera-zuin garbirik edo portaera-trebetaketarik. Gainera, espero zuten adinaz gainera emandako azalpenak haurrek ulertzea. Gainera hori larriagoa zen hizkuntz defizita zuen 3 urteko mutikoaren kasuan. Labur esateko, bikoteak ez zuten ideiarik elkarri laguntzeari buruz haurrekin ari ziren aldietan.

Gizarte-langileak familiaren deskribapenari buruzko datuak eskaintzetik hasi zen. Ondoren beren bizi-kalitatean eragina zuten faktoreak elkarrekin eztabaidatzen hasi ziren. Etengabe azpimarratzen ziren familiaren ardatz bezala ageri ziren balioak eta berauekiko loturan nola hobetu zitekeen bikotearen gurasotza. Argi eta garbi aipatu ziren familiaren baitan ageri ziren arazo guztiak. Saio batzuk egin ziren etxean bertan gurasoen trebetasunak areagotzeko haurrei orientabide argi eta sinpleak emateari eta ondorio logiko eta naturalagoak erabiltzeari zegokionez.

Partehartze honen eraginkortasuna datu koantitatibo eta koantitatiboak jasoz jarraitu zen. Gerora biek aditzera eman zuten beren haurrekiko harremanean elkarlaguntza handiagora eta seme-alabekiko tratu eraginkor eta positiboagora iritsi zirela.

## LABURBILDUMA

Autoreek adierazi dute ikerketa eta praktika eta kantitatea eta kalitatea kontrajartzearen eztabaidan bi alderdien osagairik baliozkoenak abileziak integratu behar direla. Horretarako ideia oker batzuk baztertu behar dira: datuak beren baitan bateraeziki direlako, datu-bilketa teknikak paradigma batekin edo bestearekin zintbestean loturik daudelako edota paradigma bat bestea baino hobea delako. Gizarte-langileek paradigma bakoitzak dituen ezaugarri baliozkoen konbinazioak ahalik eta eraginkorkien erabiltzera jo behar du. Integrazioak abantaila bat baino gehiago du: ikuspegi zabalagoak eskaintzen ditu osagai subjektibo eta objektiboak azpimarratuz, datu orokorren multzoan egon litezkeen

urritasunak konpentsatzen laguntzen du; egoerarik zailenetan erabili ahal izateko moduko errepertorioak osatzen laguntzen dio gizarte-langileari. Baliteke datu-kopurua eta bilketa-teknikak mugatuak izatea, dirua, denbora eta trebaketa ere mugatuak direlako; hala ere, integrazioa aurrera eraman behar da gizarte-errealitate konplexuaren ikuspegi zehatzago bat eskaintzen duelako, izan ere gizarte-lanaren muinean dagoen errealitatea egintza konkretok eta

esanahi sinbolikoz beteriko errealitatea baita da.

#### BIBLIOGRAFIA

**ALLEN-MEARES, PAULA; A. LANE, BRUCE:** "Social Work Practice: Integrating Qualitative and Quantitative Data Collection Techniques", in *Social Work*, vol. 35, n.º 5, 1990. **Xabier Mendigurenek** laburbildu eta euskaraturiko artikulua.